Ebazpena, Justizia Administrazioko zuzendariarena, zeinaren bidez behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bitartez lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedurarako deialdia egiten duena; eskainitako lanpostuak Donostiako barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorreko berriei dagozkie.

Justizia Administrazioko zuzendariaren 2026ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Eibar, Donostia, Gasteiz eta Barakaldoko barruti judizialetako funtzionarioak adskribatzeko irizpideak, eta egokitze-prozesuaren garapena.

Ebazpen horren 9. artikuluan ezartzen denez, behin-behineko atxikipenean dauden funtzionarioak LPZ berriko lanpostu batera atxikiko dira behin-behinean, behin langile guztiak egokitzen direnean.

Era berean, ebazpenaren 10. artikuluak aurreikusten du behin betiko destinoa duten funtzionarioen egokitzapena amaitu ondoren, eta bitarteko langileak izendatu aurretik, bete gabe geratzen diren lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikaletan bete ahal izango dira, egokitze-prozesua egiteko unean egoera horretan (hau da, zerbitzu eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean) eta dagokion herrian dauden funtzionarioek.

Horretarako, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

1. Behin-behineko atxikipenetan dauden funtzionarioak.
2. Zerbitzu-eginkizunetan dauden funtzionarioak.
3. Ordezkapen bertikalean dauden funtzionarioak.

Lehentasun-ordena bakoitzean, lehentasuna izango dute behin-behineko atxikipenean, zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean antzinatasun handiena duten langileek. Berdintasuna gertatuz gero, maila altuena duenak izango du lehentasuna.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT

1. artikulua.- Behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bidez lanpostu berriak aldi baterako betetzeko prozeduran parte hartzera deitutako karrerako funtzionarioen zerrenda argitaratzea; lanpostuak Donostiako barruti judizialeko bulego judizialeko, udalerrietako justizia-bulegoetako eta horien elkarteetako eta erregistro zibileko bulego orokorreko berriei dagozkie (I. eranskinean).

Zerrenda horretan, behin-behineko atxikipenean, zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean Justizia Administrazioko zuzendariaren azaroaren 3ko Ebazpenean bidez lanpostu bat esleitu zaien langileak jasotzen dira. Ebazpen horren bidez ebatzi zen 2026ko urriaren 15eko deialdia, lanpostuak zerbitzu-eginkizunetan, behin-behineko atxikipenean eta ordezkapen bertikalean aldi baterako betetzeko. Langile horien lehentasuna zehazteko, antzinatasun-data 2026ko azaroaren 3a izango da, esleitutako lanpostuan noiz hasiko diren kontuan hartu gabe.

2. artikulua.- Donostiako barruti judizialaren eremuan, bulego judizialeko, udalerrietako eta haien taldeetako justizia-bulegoetako eta erregistro zibileko bulego orokorreko lanpostu berriak behin-behineko atxikipenaren, zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bidez aldi baterako betetzeko

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8TS9-NDFP
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS | 2026/11/05 09:11:34

prozeduran eskaintzen diren plazen zerrenda argitaratzea (II. eranskina), bai eta ordezkapen bertikaleko prozesurako soilik eskaintzen diren plaza gehigarrien zerrenda ere (III. eranskina).

3. artikulua.- Funtzionarioek 2026ko azaroaren 6tik 9ra bitartean, biak barne, egin beharko dute plaza-eskaera, jarraian adierazten den estekan:

https://www.euskadi.eus/hornikuntza/ze-ob-donosti/web01-a2justic/eu/

Behin-behineko atxikipenen dauden eta eskaerarik aurkezten ez duten langileak ofizioz atxikiko ditu Justizia Administrazioko Zuzendaritzak lanpostu berri batera.

Zerbitzu-eginkizunetan edo ordezkapen bertikalean dauden langileak, prozesu honetan parte hartzeko eskaera aurkezten ez badute, edo, eskatuta ere, lanposturik lortzen ez badute, behin betiko destinoa duten lanpostuan hasi beharko dira lanean.

4. artikulua.- Adierazitako epean, funtzionarioek alegazioak egin ahal izango dituzte fase honi buruz. Alegazioak lehen aipatutako estekaren bidez aurkeztu beharko dira.

5. artikulua.- Ebazpen hau izapide-egintza da, ez du gaiaren mamiari buruzko erabakirik hartzen, eta ez dio amaiera ematen prozedurari.

Ondorioz, ezin da horren aurkako errekurtsorik jarri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA